

Doktoregoei esker, matrikulen kopuruak % 5eko igoera izan du

Ikasleen erdiek eremu soziojuridikoko ikasketak egin zituzten

Eustaten datuen arabera, 2010-11 ikasturtean 65.607 gazte matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, % 5eko igoera izan da, eta, beraz, hautsi egin da azken hamabost urteetan nagusi izan den beheranzko joera. Portaera horretan eraginik handiena izan zuen faktorea graduondoko ikasketak egiteko matrikuletan izandako igoera izan zen (aurreko ikasturtean baino 2.082 gehiago).

Lurralde-banaketari dagokionez, % 55ek Bizkaian egin zituen ikasketak, % 30ek Gipuzkoan eta % 15ek Araban.

Titulartasunari dagokionez, hamar ikaslelik zortzik unibertsitate publikoa aukeratu zuten goi-mailako ikasketak egiteko. Proporzio hori antzekoa izan zen ikasketa mota guztietan, master ofizialetan izan ezik. Izan ere, master ofizialen kasuan, zentro publikoetan egindako matrikulazioen proportzioa txikiagoa izan zen (% 65).

Adierazitako ikasturtean, graduko ikasketen kopuruak % 73ko igoera izan zuen (18.797 matrikulazio), eta unibertsitateko irakaskuntzen egitura berria finkatu zen Euskadiko unibertsitate guztietan.

Matrikulatutako ikasleria, ikasketa motaren arabera. 2010-11 ikasturtea

	Guztira	Gizonak	Emekumeak	Unibertsitateak (%)	
				Publikoak	Pribatuak
Guztira	65.607	30.260	35.348	81	19
<i>1. eta 2. zikloko matrikulatutakoak</i>	<i>40.335</i>	<i>18.534</i>	<i>21.801</i>	<i>85</i>	<i>15</i>
Lizentziaturak	18.346	6.784	11.562	87	13
Arkitekturak eta Ingenieritzak	6.371	4.222	2.149	76	24
Diplomaturak	9.135	2.706	6.429	86	14
Arkitekturak eta ingeniariaritzaren teknikoak	6.483	4.822	1.661	90	10
<i>Graduetan matrikulatutakoak</i>	<i>18.797</i>	<i>8.752</i>	<i>10.046</i>	<i>73</i>	<i>27</i>
<i>Gradu ondokoetan matrikulatutakoak</i>	<i>6.475</i>	<i>2.974</i>	<i>3.501</i>	<i>73</i>	<i>27</i>
Master ofiziala	3.344	1.440	1.904	65	35
Doktoretza	3.131	1.534	1.597	82	18

I turria: Eustat. Euskal AEko Unibertsitate-estatistika

Ikasleen artean, gizonezkoek ikasketa teknikoak aukeratu zituzten batez ere (% 70ek); emakumezkoek, berriz, lizentziaturak edo diplomaturak aukeratu zituzten nagusiki (% 66k)

Generoaren arabera banaketak erakusten duenez, unibertsitatean ikasi zuten emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago izan ziren, portzentajezko 8 puntuko aldearekin (% 54 eta % 46, hurrenez hurren).

Emakumeen kopuru handiago hori ikasketa mota guztietan gertatu zen: master ofizialetan (% 57), lehen eta bigarren zikloetan (% 54) eta graduko ikasketetan (% 53). Doktorego-ikastaroetan, berriz, oreka bat izan zen generoaren arabera banaketari dagokionez.

Edonola ere, ikasketen espezializazioan aldeak handiak izan ziren. Izan ere, ikasketa teknikoetan 9.044 gizonezko eta 3.810 emakumezko izan ziren guztira, eta lizentziaturetan eta diplomaturetan, berriz, 17.991 emakumezko eta 9.490 gizonezko.


Bestalde, 40.335 ikaslek lehen eta bigarren zikloko ikasketak egin zituzten, 18.797k graduko ikasketak, 3.344k master ofizialak eta 3.131k doktorego-ikasketak.

Lehen eta bigarren zikloko ikasketen artean, honako hauek izan ziren ikasle gehien izan zituztenak: Maisutza (3.839), Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (3.513), Industria Ingeniaritza Teknikoa (3.443), Enpresa Zientzietako Diplomatura (2.329), Industria Ingeniaritza (2.213), Zuzenbidea (1.680), Psikologia (1.529) eta Medikuntza (1.282). Horiek guztiak matrikulatutakoen erdiak izan ziren.


Graduko ikasketen kasuan, sailkapena honako hau izan zen: Psikologia (1.517), Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (1.264), Lehen Hezkuntza (1.235), Ingeniaritza Mekanikoa (1.059), Zuzenbidea (1.044), Haur Hezkuntza (688), Gizarte Hezkuntza (588) eta Negozioen Kudeaketa (514); horiek guztiak matrikulatutakoen % 42 izan ziren.

Ikasleen banaketa, ikasketa motaren eta adarraren arabera (%). 2010-2011 ikasturtea

Lehen eta bigarren zikloetan matrikulatutako ikasleak



Graduko ikasketetan matrikulatutako ikasleak



Graduko ikasketetan zein ziklokoetan, ikasleen erdiek espezializazio sozial eta juridiko bat aukeratu zuten

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateko ikasleak eremu soziojuridikoko eta teknikoko ikasketetan espezializatu ziren nagusiki, graduko ikasketetan zein zikloko ikasketetan (ikasleen % 70 eta % 80, hurrenez hurren). Zehazki, lehenak matrikulazio guztien erdiak izan ziren, eta bigarrenak, berriz, gutxixeago.

Horien atzetik, giza zientziei eta osasun-zientziei lotutako ikasketak aukeratu ziren.

Eta, azkenik, azpimarratu beharra dago unibertsitateko ikasleek neurri txikian aukeratu zituztela zientzien edota espezialitate esperimentalen eremuko ikasketak (hala nola matematika, fisika, kimika eta abar).

5.744 irakaslek eman zituzten eskolak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan, 7.952 lagunek lan egin zuten 2010-11 ikasturtean, eta zerbitzu-sektorean jardun zuten langile guztien % 1,2 izan ziren. Horien artean, 3.719 emakumeak izan ziren, hau da, % 47.

Langile horietatik guztietatik, 5.744 irakasleak izan ziren (% 60 gizonak eta % 40 emakumeak). Administrazio eta zerbitzuetako langileak, berriz, 2.208 izan ziren.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Mari Jose Triguero

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEKo Unibertsitate-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Unibertsitate-estatistikari buruzko datu-bankua